
Berradiskidetze sozialerako 10 erronka



Adostasunak lantzea,
bizikidetzaren eraikitze bidea


Lokarri
Akzioaren eta kontsultraz
aldiko herritarren sare

2012ko otsaila



Egilea: Lokarriren Koordinazio Batzordea
Argitaratzailea: Lokarri
Imprimaketa: Antza
Lege Gordailua: SS-1564/2010

bizkaia
Pza. Venezuela, 1-1º 48001 Bilbao
tlf. 94 435 51 17 fax. 94 424 47 24

gipuzkoa
Illaraberri, 1-behea 20018 Donostia
tlf. 943 000 600 fax. 943 000 603

navarra
Francisco Bergamin, 2-3º 31002 Pamplona
tlf. 948 22 71 22 fax. 948 22 36 39

info@lokarri.org

www.lokarri.org



aurkibidea

aurkezpena	4
kudeatu beharreko hiru prozesu	6
gizartea berradiskidetzearen lerro gorriak	8
berradiskidetze-prozesua jorratzeko irizpideak	9
hamar erronka berradiskidetzeko	10
ondorio bat	12

2011ko abenduaren 17an, Lokarrik, hau da, akordioaren eta kontsultaren aldeko herritarren Sareak, herritarren arteko topaketa bat egin zuen Barakaldoko BECen, gizartea berradiskidetzeari buruzko gaia aztertzeko. Lokarrik, ekitaldi horren bidez, gizarte eta politika sektore askotako jendea bildu nahi izan zuen, bizikidetzari eta gizartea adiskidetzeari buruzko gogoetak, esperientziak eta proposamenak elkarren artean banatzeko.

ETAk indarkeria 2011ko urriaren 20an amaitu ondoren, aro historikoa abiarazi da, oso ilusionagarria, eta esan daiteke behar adina baldintza daudela bizikidetzaz hobetzeko, politika normaltzeko eta bake-prozesu bat jorratzeko. Aldaketa handiko garaietan komeni da gogoeta egitea egoera berriari behar bezala ekiteko. Orain, gizartea garen aldetik, erronka handiak ditugu: esaterako, nola begiratu iraganari, zer egin gaur egun eta nola eraiki etorkizuna.



aurkezpena

Funtsezkoa da gizarteak prozesu horretan parte hartzea. Prozesua gidatzea, egia esan, erakunde ofizialei eta alderdi politikoei dagokie, baina bakearen eta bizikidetzaren hartzailea herritarrak dira; herritar guztiak, hain zuzen. Gizarteak, beraz, bake-prozesuaren ardatz izan behar du, eta ardatza den aldetik, eragile ere izan behar du. Lokarrik, hargatik, 200 lagun baino gehiago bildu zituen lehengoan Barakaldon, denetariko pentsamoldekoak, eta hauxe galdetu zien: Zer da eta zer egin behar da gizartearen berradiskidetzea lortzeko?.

Joan den abenduaren 17an batzuek eta bestek esandakoetatik atera diren emaitzak argitalpen honetan moldatu ditu Lokarrik. Argitalpenak, hortaz, ekarpena egin nahi dio gizartearen berradiskidetzeari, betiere herritarrek egindako ekarpenak oinarri harturik; bakea finkatzeko prozesuan parte hartzera bideratutako ekimen batean egindako ekarpenak oinarri harturik, hain zuzen ere.

Bake-prozesua: kudeatu beharreko hiru prozesu

Bake-prozesuaren 0 puntua

Orain arte, indarkeriazko eta blokeozko egoera batetik bake-prozesu baterako baldintzak betetzen dituen egoera batera igaro gara. Funtsean, eraldakuntza handi hori gertatu da. Lokarrik hiru baldintza nagusi zehaztu zituen, bake-prozesua itzulezina izan zedin: 1) ETAREN indarkeria amaitzea, 2) Sortu legeztatzea eta 3) herritarren parte-hartzea eragitea. Orain, lehen baldintza lortu da, eta hori arrakasta itzela da, aurrerapauso gogoangarria benetan.

Bake-prozesua, orain 0 puntuan dago, legez kanpoko Ezker Abertzaleak politikan baldintza berdinetan parte hartzeko aukera noiz ziurtatuko den zain. Hemendik aurrera, Aieteko Adierazpenak ederki dioen bezala, ETAREN indarkeria amaitu bada ere, ez da euskal arazoa bukatu; hau da, bide bat hasi da, euskal gizartearen arazoak bake bidez eta era demokratikoan errotik moldatzeko.

Hiru prozesuak

Egungo bake-prozesuan hiru prozesu desberdin daude, eta bakoitzak bere ezaugarriak, subjektuak eta garapen-ereduak ditu.

Prozesu horietako bakoitzaren helburuak kontuan hartuta, beharrezkoa da prozesu bakoitza era desberdin batez tratatzea; dena den, haiek guztiak dira beharrezkoak, bakea errotzeko eta denok kontuan hartuko gaituen bizikidetzak finkatzeko; bizikidetzak barneratzailea finkatzeko, alegia. Hirurak ere, aldi berean, denboran batera garatzen ari dira, eta haietako bakoitzean lortzen diren aurrerapausoak lagungarriak dira besteak garatzen laguntzeko

- Indarkeriaren behin betiko amaiera ziurtatzea

Helburua. Indarkeria behin betiko amaitu izana ziurtatzeko prozesuak, ahal den modurik sendoenean,

ETAk jarduera armatua amaitzeko hartu duen erabakiak ez duela itzultzerik bermatu nahi du.

Subjektuak. Prozesu hau, funtsean, ETARI eta Gobernuari dagokie. Nazioarteko organismoek laguntza eman ahalko dute bi aldeen artean behar adinako konfiantza sortze aldera.

Garapena. Prozesu hau garatuko bada, harremanak abiarazi behar dira Gobernuaren eta ETAREN artean, indarkeria-urte horiek guztiek zer ondorio ekarri dituzten argitzeko. Nagusiki, funtsezko bi kontu landu behar dituzte: 1) desarmea eta 2) ETAKoak izategatik edo ETARI laguntza eman izanagatik espetxeratuta dauden pertsonen egoera.

- Elkarrizketa politikoa

Helburua. Elkarrizketa politikoaren prozesuak akordio bat lortzea du helburu, bizikidetzak-esparru bat definitzeko, gatazka politikoa konpontze aldera. Hau da gatazka politikoa: egungo esparru juridikoaz dauden desberdintasun sakonak.

Subjektuak. Elkarrizketa politikoaren prozesua alderdi politikoek gidatu behar dute, eta esparruak ireki behar dira, herritarrek parte har dezaten.

Garapena. Elkarrizketa politikoaren prozesua garatuko bada, hainbat etapa bete behar dira: 1) alderdi politiko guztien artean elkarrenganako konfiantza sortzea, 2) metodologia bat eta agenda bat adostea negoziazio politikorako, 3) negoziazioak abian jartzea, 4) akordio bat berrestea eta 5) herritarrei kontsulta egitea.

- Gizartea berradiskidetzea

Helburua. Urte askoan, indarkeria eta gatazka hondagarria nagusi izan ondoren, prozesu hau zauriak sendatzera bideratuta dago eta, era berean, behar bezalako oinarriak jarri nahi ditu, aurrerantzean holako indarkeria-urterik ez izateko, Giza Eskubideak

ez urratzeko eta kanporaketarik ez izateko.

Subjektuak. Gizarteak eta gizarte-eragileek prozesu honetako zutabeak izan behar dute, bai eta politikariek ere.

Garapena. Iraganean gertatu denari dagokionez, helburua da azken 50 urte hauetan gertatu diren Giza Eskubideen urraketa guztiak aitortzea. Aitortza horrek izan behar du gertatu den gauza ororen balorazio zuzena egiteko oinarria.

Orainari dagokionez, helburua integratzea da. Hau da, egoera berria sortu beharra dago, Giza Eskubide guztiak errespetatzeko eta sufrimendu-esparruak ezabatzeko. Lana ere egin behar da hizkuntza bera eta jarrera sozialak zein politikoak gizatiartzeko: hau da, "etsaia" eta gisako hitzetatik desberdintasunak errespetatuko dituen hizkuntzara igaro beharra dago.

Azkenik, etorkizunari begira, gizarte berradiskidetzeko prozesua garatuko bada, oinarriak jarri beharko dira, berriz ere gatazkaren kudeaketa hondagarririk gerta ez dadin. Horregatik, metodologia baketsu eta demokratikoa definitu eta hitzartu beharko da, euskal gizarteak dituen gatazkak edo etorkizunean izan ditzakeenak jorratzeko.

Baketik erakundeak, hau da, aldaketa pertsonalerako eta sozialerako zentroak, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du Lokarriekin bizikidetzaren berradiskidetzea sustatzeko eta bultzatzeko. Zentro horrek, bada, lau abiapuntu ezarri ditu berradiskidetze-prozesu baterako:

- Definizioa

Indarkeriak, giza eskubideen urraketak eta krispazioak kolpatutako hamarkaden ostean, berradiskidetze soziala lehentasuna da geure herrian. Errespetuaren eta elkar onartzearen balio nagusia berreskuratzen duen bizikidetzaren kultura berria sortzea esan nahi du eta giza duintasunarekiko konpromisoan oinarritzen da hierarkikoki printzipio goren gisa.

- Helburuak

Berradiskidetze-prozesu baten helburuak hiru dira: (1) biktima guztiei eragindako kaltea ahal den neurrian aitortzea, arintzea eta ordaintzea; (2) gizartearen sortutako hausturak konpontzea; eta (3) bere oinarriari eta

funtzionamenduari buruzko funtsezko adostasunean oinarritutako bizikidetzaren laguntzea.

- Ardatzak

Berradiskidetze-prozesuak hiru ardatz ditu: iragana, oraina eta etorkizuna; eta hiru galderei erantzun partekatua bilatzea da kontua: zer gertatu da? zein da lehentasuna orain? zer egin behar dugu berriro ez gertatzeko?

- Irizpide gidaria

Erabaki berbera mantentzea; erabaki erabat tinkoa iraganaren berrikuspen etikoa eta kritikoa egin dadin zein orainaren humanizazioari lotua eta gizarte mailan bizikidetzaren etorkizun integratuarekin behin betiko konpromisoa hartuz.

(Dokumentua helbide honetan kontsultatu daiteke: http://baketik.org/argitalpenak/acento_2012_cas.pdf)

Gizartea berradiskidetzearen lerro gorriak

Gizartea berradiskidetzeko prozesu baten irizpide eta erronka nagusiak zein diren ezarri aurretik, beharrezkoa zaigu gaintitu ez daitezkeen lerro gorri batzuk finkatzea, zauriak sendatzeko helburua lortu nahi badugu, eta behar bezalako oinarriak jarri nahi baditugu, etorkizunean holako indarkeriarik, Giza Eskubideen urraketarik eta kanporaketarik ez gertatzeko.

1- Ahanztura

Espainiako Trantsizioaren eredua, egiazki, izan daitekeen adibiderik txarrena da berradiskidetze-prozesu baterako. Etorkizun hobea eraiki nahiak ez du berekin ekarri behar gertatu den gutzia ahaztu beharra. Ahanzturaren bidetik iragana etengabe berragertzen da, behar bezala kudeatu ez delako.

2- Desberdintasuna

Ezin da biktimen arteko desberdintasunik egin egilearen arabera edo giza duintasunari min egin zaion momentu historikoaren arabera. Giza eskubideen nazioarteko doktrinak argi eta garbi esaten du: Giza Eskubide urraketa berdin orori aitortza eta ordain berbera dagozkio. Bestela sufrimenduen tratamendu ezberdin bat egongo da eta horrek eragingo duen bakarra biktimizazio bikoitza izango da.

3- Inposatzea

Gizarte berradiskidetzea ez da egiazko berradiskidetzea izango, inposatzen bada. Gizartearen zati batek ezin dio besteari bere memoria inposatu, ez bere kontaketa, ez biktimei buruz duen ikuskera, ezta bizikidetzarako dituen baldintzak ere. Berradiskidetzeak, gainera, ez dezake inola ere ezarri nork bere iaerari edo pentsaerari uko egiteko betebeharra.

4- Umiliazioa

Ezin da gizartea berradiskidetzeko prozesua jorratu, umiliatzeko asmoarekin. Umiliazioak eta mendeku gogoek bestelako sufrimenduak dakartzate, eta sufrimenduek arazoak gaiztotzen dituzte eta zauriak berriz ere irekitzen dira.

5- Justifikazioa

Bateraezinak dira gizartea berradiskidetzea eta giza eskubideetan gertaturiko urraketa larriak justifikatzeko saiakerak. Gatazka politiko bat izatea edota indarkeriaren aurkako borroka ez dira inola ere esparru gisa erabili behar eragindako kaltearen inguruko erantzukizunak bizkar gainetik kentzeko.

6- Utzikeria

Berradiskidetzearen oinarria ez da inola ere “besteari”, desberdina denari, etengabe eskakizunak egitea, eta ez diogu uko egin behar geure burua kritikatzeari, iraganean izan ditugun jarrerengatik eta egin ditugun ekintzengatik; era berean, ezin ditugu bazter utzi norberak dituen erantzukizunak, hori ez baita berradiskidetzea sustatzeko modua.

Ezin da biktimen arteko desberdintasunik egin egilearen arabera edo giza duintasunari min egin zaion momentu historikoaren arabera

Berradiskidetze-prozesua jorratzeko irizpideak

1- Aldebakartasuna

Gizartea berradiskidetzeko prozesuak autokritika bat behar du iraganean izandako jarrereri eta jokabideei buruz. Autokritikak oinarria izan behar du, sektore politiko eta sozial bakoitzak, pertsona bakoitzak, berradiskidetzeari zer ekarpen egiten dion erabaki dezan. Erabakiak ez dira egon behar beste sektore batzuk edo beste lagun batzuek egin dezaketinari lotuta. Erabakiek aldebakarrak izan behar dute, eta erabaki guztien artean behar bezalako baldintzak sortuko dira iraganari, orainari eta etorkizunari guztien artean, era partekatuan, aurre egiteko.

2- Pazientzia

Gizartea berradiskidetzeko prozesuak denbora behar du, 1) bakoitzak zer ekarpen egin erabaki dezan eta 2) elkarren arteko errespetuan eta elkarren arteko onarpenean oinarritzen den etorkizuna pixkana finkatze aldera. Pazientziaz jokatu beharra dago, egoera eta jarrerak egunetik arratsera aldatzen ez direlako, iraganak oraindik ere bere ondoriorik kaltegarrienak orainaren gainean pausatuak dituelako. Gizartea berradiskidetzeko prozesuak gizartearen bilakaera behar du, eta, hartara, pazientzia eta jarraitutasun handia behar da, aurrera egingo bada.

3- Denok barne hartzea

Gizartea berradiskidetzeko prozesuari beharrezkoa zaio gure gizartean dauden sektore politiko eta sozial guztiak barne hartzea, eta barne hartzea ere, bai gertatu denari buruzko kontaketa guztiak bai jasan diren sufrimendu bidegabe guztiak. Horrela bakarrik gaingituko baitira iraganetik heldu zaizkigun zauriak eta hausturak. Inolako sektorerik kanpoan utzies gero, gizartea berradiskidetzeko prozesua baztertzaila izango da eta ez da gauza izango errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako etorkizuna eraikitzeko.

4- Adostasuna

Bakea eraikitzeko aukerak egon badauden honetan, guztion artean partekatu eta definitu behar dira zer neurri hartu behar diren berradiskidetzea errazteko. Izan ere, era partekatuan hartzen diren ekimenek gaitasun handiagoa izango dute herritarren sostengua lortzeko eta gizartea berradiskidetzeko prozesuan aurrerapausoak emateko. Elkarrizketaren bidea jorratzea beharrezkoa da herritarrek, oro har, ibiltzeko moduko bidea adosteko, gizartea berradiskidetze aldera.

Inolako sektorerik kanpoan utzies gero, gizartea berradiskidetzeko prozesua baztertzaila izango da eta ez da gauza izango errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako etorkizuna eraikitzeko

Hamar erronka berradiskidetzera

1- Egia

Kontatu eta argitu egin behar da azken urteotan gertatu denari buruzko egia guztia. Oinarrizko eskubideak norik urratu zituen jakiteko eskubidea dute biktimek. Gizarteak ere egia ezagutzeko eskubidea dauka, etorkizunean errepika ez daitezen aipatu eskubideen urraketa ekarri zuten inguruabarrak.

2- Memoria

Gizarteak, bai eta gizartea ordezkatzeko duten erakundeek ere, gertatutakoa ez ahazteko betebeharra dute, bai eta Giza Eskubideetan izandako urraketa guztien memoria gordetzeko betebeharra ere. Gertatu denari buruzko interpretazioak, bai eta zergatiak ere, desberdinak izan daitezke, baina ez dago ekintzen egia estaltzerik. Memoria partekatua, ziurrenera, laburra eta zehatza izango da, baina balorazio etiko bat bildu beharko du, giza duintasunaren errespetuan oinarrituta.

3- Biktima guztientzako aitortza eta ordaina

Oinarrizko Giza Eskubideak urratu dizkieten pertsona

guztiak neurri berean dute aitortza eta ordaina jasotzeko eskubidea, inolako desberdintasunik gabe eta inolako bazterketarik gabe. Erronka honen baitan, ordain ekonomikoak, omenaldiak, erakundeen aitortza, eta laguntza emateko neurriak sartzen dira (neurri juridikoak, psikologikoak, lan arlokoak).

4- Eragindako kaltea aitortzea

Barkamena eskatu eta ematea norberaren kontua da, eta ez du derrigorrezkoa eta inposatua izan behar. Beharrezkoa da, dena den, halako autokritika kolektibo bat egitea, iraganean Giza Eskubideen urraketa izandako erantzukizunari buruz.

5- Erakundeen, gizartearen eta komunikabideen ekarpena

Erakundeek, gizarteak eta komunikabideek, oro har, bere esku daukate gizartea berradiskitzeko behar diren neurriak hartzea. Eragile aktiboak izan behar dute erronka horretan. Prozesu horren arduradun eta protagonista nagusiak dira.

Oinarrizko Giza Eskubideak urratu dizkieten pertsona guztiak neurri berean dute aitortza eta ordaina jasotzeko eskubidea, inolako desberdintasunik gabe eta inolako bazterketarik gabe

6- Gizatiartzea

Berradiskidetzeta gauzatuko bada, Giza Eskubide guztiak eta oinarritzko askatasun demokratiko guztiak errespetatzeko moduko esparru bat sortu behar da. Beraz, mehatxu mota orok desagertu behar du, eta erakundeek legeen arloan eta espetze arloan lan egin behar dute sufrimendu esparruak ezabatzen.

7- Kultura politiko berria

Gizartea berradiskidetzeko prozesuari beharrezkoa zaio azken urteotako kultura politiko nagusia errotik aldatzea. Alde batera utzi behar da zatiketa eragiten duen hizkuntza, bestela pentsatzen duena etsaitzat jotzea sustatzen duen hizkuntza, eta bestelako esparru bat adostu behar da harreman politikorako, betiere errespetuan, desberdintasunen onarpenean eta elkarlanerako borondatean oinarrituta.

8- Urraketarik ez errepikatzen konpromisoa

Etorkizuneko bizikidetzak Giza Eskubideen urraketarik ez errepikatzen konpromisoa behar du; konpromiso

argi, zehatz eta tinkoa, hain zuzen ere. Hori da hurrengo belaunaldientzako ondarerik onena.

9- Desberdintasun politikoak bideratzeko metodoa

Euskal gizartea anitza da eta etorkizunean ere anitza izango da. Desberdintasun horiek, orain arte, era hondagarrian kudeatu dira. Etorkizunari begira, metodo baketsu eta demokratiko bat zehatu beharra dago, desberdintasun politikoei irtenbide berriak bilatzeko. Euskal gizartearen gatazkentzako kudeaketa-sistema eraikigarriak hainbat oinarri izan behar ditu: hots, elkarrizketa, adostasuna, guztien artean partekatzea, inor bazterrean ez uztea eta elkarlana.

10- Bakearen kultura

Laburbilduz, gizartea berradiskidetzeko bada, euskal gizartearen bakearen aldeko kultura garatu beharra dago, betiere giza duintasunaren errespetuan, aniztasunean, berdintasunean, elkarrizketan eta parte-hartzean oinarriturik.

Euskal gizartearen gatazkentzako kudeaketa-sistema eraikigarriak hainbat oinarri izan behar ditu: hots, elkarrizketa, adostasuna, guztien artean partekatzea, inor bazterrean ez uztea eta elkarlana.

Ondorio bat



Lokarrik ekitaldi bat antolatu zuen, jendeak gizarte berradiskidetzearen gaian parte har zezala sustatzeko. Eta gogoetak, eztabaidak eta ekarpenak, egia esan, sakonak izan ziren; horrek esan nahi du, beraz, ekarpenak egiteko gogo handi-handia dagoela. Eta, gauza bera sumatzen da oro har herritarrengan, iragana itxi nahi baitute, etorkizuna ahalik eta modurik hobereanean jorratzeko.

Are gehiago, Barakaldon egindako elkarrizketaren aktek* konpromiso-zentzu handia erakusten dute; hau da, pertsona parte-hartzaile guztiak erantzunkide sentitzen dira gizartea berradiskidetzeko prozesua bultzatzen laguntzerakoan. Erakundeei, alderdiei eta gizarte taldeei dagokien eginkizun garrantzitsuaz

haratago, pertsonen engaiamenduak nabarmentzen du zeinen garrantzitsua den gizabanakoen jarrerak aldatzea errespetuan oinarritutako etorkizuna eraikitzeko.

Aprobetxatu beharko litzateke, beraz, gizartearen bultzada, gizartearen aldeko jarrera; eta ez da bazterrean utzi behar, huskeria bailitzan. Herritarrek, oro har, esparru bat izan behar dute, gizartea berradiskidetzeko prozesuan aktiboki parte hartzeko duten gogoia eraikigarritasunez bideratzeko, haien ahotsa entzuna eta kontuan hartua izan dadin.

** Akten edukia www.lokarri.org webgunean ikus dezakezue.*

www.lokarri.org

Hau hasiera besterik ez da. 2012 osoan, Lokarrik proposamen zehatzak aurkeztuko ditu, gizartea adiskidetzeak dakartzan erronkei aurre egiteko, betiere denok kontuan hartuta eta inor bazterrean utzi gabe, hau da, era barneratzailean eta partekatuan. Horixe da prozesu horri egin nahi diogun ekarpena.